

Patxi Ormazabal

• EAEKO LURRALDE ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUA •

«Garraioen kutsadura da orain dugun erronkarik handiena»

■ ■ ■ Ingurugiroa Babesteko Lege Orokor berria onartu dute orain gutxi, eta bere ondorioei buruz mintzatu gara Patxi Ormazabal sailburuarekin. ■ ■ ■ Tartean zarataren inguruko Udal ordenantza eta hezkuntza izan ditu hizpide ■ ■ ■ Azkenik, ingurugiroaren alorraren inguruko urteko balantzea egin du.

■ Abian jarri duzue ingurugiroaren legedi berria. Zeintzu izango dira praktikan ekarriko dituen aldaketak?

Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra lege konplexua da oso, eta bere xedea da euskal herritarren borondatea finkatzea, helburuak hierarkizatuz. Era berean, ingurugiroaren ikuspegi juridiko berri baten oinarriak ezarriko ditu. Egia da legea osatzen duten kapituluaren artean batzuek eragin praktikoa handiagoa dutela, hala nola, administrazioak parte hartzea jarduera ekonomikoetan ingurugiroaren gaineko erasoari buruzko azterlanen bidez edo diziplina erregimenaren bidez. Eskubideak ez ezik betebeharrak ere sortzen dituen ondasun soziala dugu ingurugiroa.

■ Legedi berriak nola jasotzen ditu ingurugiroaren kontrako delituei aplikatutako zigorrak?

Legian jasotzen diren zigorrak ez dira ingurugiro delituengatik ezarri, lege-haustengatik baino. Dena dela, beti gordetzen da proportzionalitate printzipioa zigorraren eta lege-haustearen artean. Europako Batasunak jarritako araztarauari jarraitzen die Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra, eta hiru talde handi bereizten ditu: lege-hauste arinak, lau milioi pezetarainoko zigor ekonomikoarekin (160.000 libera inguru); lege-hauste larriak, 40 milioi pezetarainokoekin; eta lege-hauste oso larriak, 200 milioi pezetarainokoak ere izan daitezkeen isunekin. Hala ere, uste dut badirela beste kontzeptu interesgarriago batzuk, esaterako ingurugiroaren gaineko kalteak jasan dituzten baliabideak leheneratu beharra.

■ Legedi guztiak orokorrean Europako Batasunak finkatutako arauen inguruan ari dira berriren, beraz.



JOSEBA OLALDE

Ingurugiro Legea

«Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra onestea izan da, zalantzarik gabe, arlo honetan egin dugun jarduerarik garrantzitsuena»

Europako Batasuna da aspalditik ingurugiroaren gaineko legedi guztia oinarritzen duena. Behin xedapenak emanez gero, Estatura bidali eta Autonomia Erkidegoak gara lege garapena egiten dugunok. Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra onestea izan da, zalantzarik gabe, arlo honetan egin dugun jarduerarik garrantzitsuena. Orain kutsaduraren osoko kontrola

izeneko IPPC araztaraua bidali diezaguten zain gaude, Jaurlaritzak eta Legebiltzarrek lege garapena egin dezagun. Europako Batasuna aurrerapauso handiak ematen ari da arauen arloan, baina araztarauak onartzea oso traste edo izapide konplexua da eta luze jotzen du. Adibidez, sei urte joan dira zabor-tegiei buruzko araztaraua onesteko.

■ Badirudi hezkuntza eta informazioaren aldeko apustua egin duela Eusko Jaurlaritzak.

Hezkuntzaren alde egiten dugu, horixe baita, gure ustez, pentsakera aldaketari ekiteko ardatz nagusia. Izan ere, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jasangarritasunean oinarritutako gizarte eredu edo garapen sozioekonomikoari aurre egin ahal izateko. Baina hezkuntzaz ari garenean esanahi zabalean egiten dugu, hau da, hezkuntza programa metodikoari ez ezik, oro har zabalkunde eta sentsibilizazio kanpainei ere badagokiela. Ari naiz, esaterako, sindikatu eta patronalarekin izenpetzen ditugun

Hezkuntza

«Hezkuntza beharrezkoa eta ezinbestekoa da jasangarritasunean oinarritutako gizarte eredu edo garapen sozioekonomikoari aurre egin ahal izateko»

hitzarmenez, hain zuzen, langile zein enpresariak sentsibilizatzeko, euren politikan ingurugiro aldagaia sardezaten. Bestalde, hari berdeko telefonoan hilabeteko 200 bat dei jasotzen ditugu batez beste, dagoen sentsibilitate adierazten dutenak. Bestetik, *Ingurugiro Hiztegi Entziklopedikoa* argitaratzekak bi helburu ditu: bata, hezi eta jakinduria hurbiltzea, eta bestea, hori euskaraz egitea.

■ Zarata edo soinu kutsadura. Orain udal ordenantzen esku dago. Zer abantaila eta desabantaila ditu horrek?

Badira jaulkitzaile edo igorleak (ibilgailuak, jarduera industrialak, trafikoa, tabernak) eta jasotzaileak (pasean dabilen edo etxean dauden herritarrak). Ibilgailuen zarata mailari buruzko araudia orokorra da eta ez dago udal araudien esku. Baina mugei buruzko araudia gorabehera, ezinbestekotzat jotzen dut plangintza ona egitea hirietan. Udal ordenantzak tresna ona izan daitezkeelakoan nago neurri horiek aplikatu eta udalerriaren erabilerak planifikatzerakoan.

■ Urteko balorazioa egingo diguzu ingurugiroari dagokionez?

Udalek Agenda 21 delakoa indarrean sartzeko egiten diharduten ahalegina eta enpresariak produkzio garbia nola barneratu duten azpimarratzea nahi nuke.

Ingurugiroaren egoera hobetu egin da oro har, eta herritarrak jabetu egin dira horretaz. Baina nire ustez European ere dagoen erronka handienetako bat garraio publikoari eta horrek sortzen duen kutsadurari lotutakoa da. Dagoeneko udalerrit askotan saiatu dira oinezkoen esparruak berreskuratzen eta, horrela, trafikokoaren eragina murrizten, baina aldi berean gero eta errepide eta kotxe gehiago dugu eta gehiago erabiltzen ditugu. Horixe da orain dugun erronkarik handiena.